9· Ordenean jarri ondoko ekintza hauek, zenbakiak erabiliz:



Gau hartan lo egin ezinik ibili zen… Bueltaka eta bueltaka ibili zen izara artean, lokartu ezinik. Tomaxek esandakoak argi apurtxo bat eman zion halako batean: urpean. 1

Elkarrekin joan ziren Basera. Irribarrez begiratu zion Adamak txabola barruko guztiari. —Lapatza —holaxe esan zion txitari—, gaur uretara joango gara.

—Garaziren oilaskoa beltza izateaz gain, gorra da, jua, jua, jua, jua!

Azkenean, uste baino hobeto joan zen eguna. Ur azalean nahiz azpian ondo moldatzen zen Lapatza, eta horrek halako lasaitasuna eman zion Garaziri.

Gora igo zen portuko arranplatik eta Lapatzaren ondoan jarri zen. Goitik etengabe entzuten ziren lagunen burlak.

Baina sutan zegoen Garazi eta, birritan pentsatu gabe, Lapatza eskuetan hartu eta salto egin zuen uretara. Dzaaaaanga!!! Adamak ere gauza bera egin zuen.

Eta portura bidean jarri ziren hirurak… Horrela agertu ziren portuko ezkerraldean… Hemen ez dago arriskurik...

Ur azpian ubarroia askatu egin zen Garaziren eskuetatik eta gora jo zuen, ur azalera. Garazik ikusi zuen zelan moldatzen zen Lapatza, hegoak astinduz, uretan.

Hurrengo egunean neopreno labur bat, aletak, uretako maskara eta hodia motxila batean sartu, eta Basera abiatu zen. Handik gutxira leiho batetik Adamaren ahotsa entzun zuen.
— Itxaron minutu pare bat, lagunduko dizut, bai?

—Agian, gertatzen dena da zu pozik zaudela txitari laguntzen, bere ondoan... bere ama bazina bezala. 10

LIVEWORKSHEETS



* Zein burla egin diote lagunek Adamari?

	Oilasko beltza!
	Oilasko beltzaren bikotea!
	Kiki kuakua!

* Zergatik oihukatu diote hori?

	Oilaskoaren antza duelako.
	Lapatzaren ondoan dagoelako.
	Larrua beltzarana duelako.

* Garazi pozik dago Lapatzari lagundu diolako. Baina ubarroiak behar al du laguntzarik?

	Bai, laguntzarik gabe hil egingo litzateke.
	Ez du behar laguntzarik. Aske utzi behar zuen hasieratik.
	Txikia den bitartean bai, baina heldutzen denean ez.

* Lapatza igerian ikusi eta gero….
Garazi ez da fidatzen Adamak animalia bakarrik moldatuko dela esaten dioenean. Zergatik ote?

	Pozik sentitzen delako Lapatza laguntzen, bere amatxo izango balitz bezala.
	Lapatzak oraindik uretan gaizki igeri egiten duelako.
	Lapatzak beti laguntza beharko duelako, bere benetako amak erakutsi ez bait dio.

LIVEWORKSHEETS